

Bizkaiko Foru Aldundiaren FORU DEKRETUA. Honen bidez, 2025. urtean zehar Bizkaiko kultur ondare etnografikoa zaindu, ikertu eta zabaltzeko jarduerak egiteko foru diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen dira.

Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren helburuetako bat da Bizkaiko legatu historikoa eta kulturalaren agerkari guztiak ikertu, zaindu, zabaldu eta kudeatzea, baita legatu horren balio nagusiak gizarteratzeko eta transmititzeko programak garatzea ere.

Eta, helburu horien esparruan sartu behar dira Bizkaiko ondare etnografikoa sustatu eta zaintzeko jarduerak, zeinak Foru Erakunde honek garatzen dituen.

Zehazki, Foru-Dekretu honen bidez, Bizkaiko ondare etnografikoaren eremuko jarduerak 2025. urtean zehar egiteko dirulaguntzak nola eman arautzen da, publizitatearen, lehiaren eta objektibotasunaren printzipioetan oinarriturik. Jarduerok ondare hori zaintzera, ikertzera eta zabaltzera bideratuta egongo dira.

DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia por el que se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria de subvenciones forales destinadas a la realización de actividades en el ámbito de la conservación, investigación y difusión del patrimonio etnográfico de Bizkaia que se realicen a lo largo del año 2025.

El Departamento de Euskera, Cultura y Deporte tiene entre sus objetivos investigar, conservar, difundir y gestionar el legado histórico-cultural de Bizkaia, así como desarrollar programas destinados a la socialización y a la transmisión de sus valores principales.

Así, es en el marco de esos objetivos donde se encuadran las actividades de fomento y salvaguarda del patrimonio etnográfico de Bizkaia que desarrolla esta Institución Foral.

En concreto, el presente Decreto Foral regula la concesión de subvenciones forales destinadas a la realización de actividades en el ámbito del patrimonio etnográfico de Bizkaia que se realicen a lo largo del año 2025, con fines de conservación, investigación y difusión de dicho patrimonio, sobre la base de los principios de publicidad, concurrencia y objetividad.





Jarduera horien xedea da kultur ondare etnografikoa zaintzen eta zabaltzen laguntzea, hiritarrak aberastu eta sentsibilizatzeko, kontuan izanik ondare etnografikoa honako hauek osatzen dutela: Bizkaian historian zehar erabilitako leku, higiezin eta instalazioek, forma tradizionalen adierazgarri diren ezaugarri arkitektonikoak eta paisaiaren arlokoak dituztenek; Bizkaiko tradizio kulturalen edo jarduera sozio-ekonomiko tradizionalen adierazpen historiko diren ondasun higigarriek, eta iraganetik jasotako jarduera eta ezagutzek, bizkaitarren berezko kulturaren eta bizimoduaren forma esanguratsuak eta adierazpide direnak; ondare inmaterialak, hau da, gure arbasoengandik jaso ditugun eta bizirik irauteen duten kultur adierazpen ukiezinak, eta esperientzia historikoaren eta lekuko biziak transmititutako praktika kulturalen memoriak.

Holan, kultur ondare etnografikoa zaindu, ikertu eta zabaltzeko interesa duten erakunde, elkarte eta kultur eragileek ekimenak sustatzeak laguntzen du, lehengoengandik jasotako kultur aberastasuna eta hura transmititzeko estekak gordetzen ez ezik, gure ekoizpen kulturala aberasten eta Bizkaia kultura sarea sendotzen.

Foru-dekretu honen eskumen-esparruaren oinarria Euskal Kultura-Ondareari buruzko 2019ko maiatzaren 9ko 6/2019 Legean dago ezarrita. Izan ere, lege horren 3.3.e) artikulua ezartzen du foru-erakundeei eta haien lurralde historikoei hau dagokiela: Euskal kultura-ondarearen kontserbazioa eta zaharberritzea sustatzeko neurri ekonomikoak bultzatzea. Era berean, lege horren 2.1 artikulua arabera, honako hauek osatzen duten euskal kultur ondarea: arte, historia, arkeologia, paleontologia, etnologia, antropologia, hizkuntza, zientzia, industria edo paisaia edo arkitektura aldetik, edo kulturaren beste edozein alderdiren

Estas actividades tienen como finalidad colaborar, tanto a la preservación del patrimonio cultural etnográfico, como a su divulgación, en una acción de enriquecimiento y sensibilización de la ciudadanía, teniendo en cuenta que el patrimonio etnográfico está integrado por los lugares, inmuebles e instalaciones utilizados históricamente en Bizkaia, cuyas características arquitectónicas o paisajísticas sean representativas de las formas tradicionales; por los bienes muebles que constituyen una manifestación histórica de las tradiciones culturales vizcainas o de actividades socioeconómicas tradicionales; por las actividades y conocimientos heredados del pasado que constituyan formas relevantes y expresión de la cultura y modos de vida tradicionales propios del pueblo vizcaíno; y también por el patrimonio inmaterial, es decir, por las expresiones culturales vivas intangibles heredadas de nuestros antepasados y por la memoria de la experiencia histórica y de las prácticas culturales transmitida por testigos vivos.

Así, apoyar las iniciativas surgidas de las diferentes entidades, asociaciones y agentes culturales interesados en la conservación, conocimiento y difusión del patrimonio etnográfico contribuye no sólo a preservar esta riqueza cultural heredada y sus vínculos de transmisión, sino también a enriquecer la producción cultural propia y a reforzar el tejido cultural de Bizkaia.

El marco competencial en el que encuentra su amparo el presente Decreto Foral tiene como punto de partida la Ley 6/2019, de 9 de mayo, de Patrimonio Cultural Vasco, la cual establece en su artículo 3.3.e) que corresponde a las instituciones forales, en sus respectivos territorios históricos, impulsar las medidas económicas de fomento para la conservación y restauración del patrimonio cultural vasco. Asimismo, el artículo 2.1 de dicha ley precisa que forman parte del patrimonio cultural vasco todos aquellos bienes culturales inmuebles, muebles e inmateriales que ostentan un valor artístico, histórico, arqueológico, paleontológico,





aldetik, balioa duten Euskadiko kultura-ondasun guztiek (higiezinak direla, higigarriak edo immaterialak), aintzat hartuak izateko eta belaunaldi arteko transmisiorako interesa badute.

Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 29ko 131/2020 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren Egitura Organikoari buruzko Erregelamenduaren arabera, sail honi Bizkaiko legatu historiko eta kulturala ikertu, zaindu, zabaldu eta kudeatzea dagokio, eta, zehazki, Bizkaiko ondare arkeologiko, etnografiko eta inmateriala sustatu eta babestea, haren agerkari ezinbestekoa den neurrian.

Araudi hori izapidetzean, erregulazio onaren printzipioen arabera jarduten da, Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuaren (Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duena) 3. artikuluan eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan ezarritakoaren arabera. Azkenik, maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretua betetzen da, zeinaren bidez ezartzen baitira Bizkaiko Foru Aldundiaren jardun-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpidea.

Bestalde, aurrerapen ekonomikoa eta soziala lortzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak ezinbestekotzat jotzen du emakume eta gizonen benetako berdintasuna lortzeko aurrerapausoak ematea, eta, bide horretan, hainbat urte daramatza berdintasunaren arloan lanean. Ildo horretan, dekretu honek genero-ikuspegia eta ikuspegi intersektionala jasotzen ditu, bai berau prestatzeko orduan bai beronen aplikazioan, kontuan hartuta zer adierazten den martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan -emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen

etnológico, antropológico, lingüístico, científico, industrial, paisajístico, arquitectónico o de cualquier otra naturaleza cultural que merezcan ser considerados de interés para su reconocimiento y transmisión intergeneracional.

De conformidad con el Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento de Euskara, Cultura y Deporte, aprobado por Decreto Foral 131/2020, de 29 de diciembre, de la Diputación Foral de Bizkaia, corresponde a este Departamento la investigación, conservación, difusión y gestión del legado histórico-cultural de Bizkaia y, concretamente, el fomento y salvaguarda del patrimonio arqueológico, etnográfico e inmaterial de Bizkaia, como manifestación ineludible del mismo.

En la tramitación de esta normativa se actúa de acuerdo con los principios de buena regulación, de acuerdo con lo establecido en el artículo 3 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 87/2021, de 15 de junio, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones generales en la Diputación Foral de Bizkaia, y en el artículo 129 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, que aborda iguales principios con carácter general. Finalmente, se cumple con lo establecido en el Decreto Foral 63/2019, de 28 de mayo, que establece los criterios de uso de las lenguas oficiales en el ámbito de actuación de la Diputación Foral de Bizkaia.

Por otra parte, y para lograr el progreso económico y social, la Diputación Foral de Bizkaia considera imprescindible avanzar en la consecución real y efectiva de la igualdad de mujeres y hombres, y lleva numerosos años trabajando ese campo con dicho objetivo. En esta línea, este decreto incorpora la perspectiva de género y la perspectiva interseccional, tanto en su elaboración como en su aplicación, tal y como se señala en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley para la igualdad de Mujeres y Hombres y





aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen Testu Bategina onartzen duena- eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan. Era berean, kontuan hartu da azaroaren 14ko 112/2024 Foru Dekretuan xedatutakoa. Dekretu horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundian generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa arautzen da.

Azkenik, adierazi behar da, Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuan ezarritakoarekin bat, dirulaguntzen dekretu hau prestatzean txosten hauek eman direla:

1. Genero-eraginaren aurretiazko ebaluazioa.
2. Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren txosten juridikoa.
3. Generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzko txostena.
4. Kontrol ekonomikoari buruzko txostena.
5. Legezketasunari buruzko txostena.

Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 39.k) artikulua ezartzen du foru diputatuen eskumena dela, besteak beste, Foru Aldundiari proposamenak aurkeztea haien sailtako gaien buruzko foru dekretuen proiektuak onartzea. Bestalde, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 16.1 artikulua ahalmena ematen dio Bizkaiko Foru Aldundiari diru-laguntzen emakida arautuko duten oinarriak onesteko. Eta Diru-laguntzen Erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 41.1 artikulua aukera ematen du diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia batera izapidetzeko, eta ezartzen du Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluari dagokiola onartzea,

vidas libres de violencia machista contra las mujeres, y en la Norma foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres. Además, se ha tenido en cuenta lo dispuesto en el Decreto Foral 112/2024, de 14 de noviembre, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se regula la evaluación previa del impacto en función del género en la Diputación Foral de Bizkaia.

Cabe señalar finalmente que, atendiendo a lo dispuesto en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 87/2021, de 15 de junio, en la elaboración del presente decreto de subvenciones se han emitido los siguientes informes:

1. Evaluación preliminar del impacto de género.
2. Informe Jurídico del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte.
3. Informe de Evaluación Previa del Impacto en Función del Género.
4. Informe de control económico.
5. Informe de legalidad.

El artículo 39.k) de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, señala que compete a los diputados forales proponer a la Diputación Foral, para su aprobación, los proyectos de decreto foral en las materias propias de su Departamento; el artículo 16.1 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, habilita a la Diputación Foral de Bizkaia para aprobar las bases reguladoras de su concesión, y el artículo 41.1 del Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, de la Diputación Foral de Bizkaia por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, establece la posibilidad de la tramitación conjunta de las bases reguladoras y la convocatoria de subvenciones, correspondiendo al Consejo de Gobierno su





egintza bakarrean.

Hori dela bide, Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Foru diputatuaren ekimenez, eta aurrez Bizkaiko Foru Aldundiak azterturik, honako hau

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra. *Diru-laguntza foralen oinarri arautzaileak eta deialdi publikoa onestea.*

Bizkaiko Lurralde Historikoan, 2025. urtean zehar, Bizkaiko ondare etnografikoa zaindu, ikertu eta zabaltzeko jarduerak egiteko Euskara, Kultura eta Kirol Sailak emango dituen foru diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onesten dira.

Azken xedapenak.

Azken xedapenetako lehenengoa. *Erregelamendu bidez garatzeko gaikuntza.*

1. Gaitu egiten da Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Foru diputatua, Foru Dekretu honetan xedatutakoa garatu, gauzatu eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan. Gaikuntza horren barruan sartzen da dagozkion diru-laguntzak ematea.

2. Halaber, Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru diputatuari ahalmena ematen zaio eskaerak aurkezteko epea luzatzeko, baldin eta dagokion sistemaren edo aplikazioaren ohiko funtzionamendua eragozten duen gorabehera teknikoren bat gertatzen bada, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 32.4 artikuluan aurreikusia.

aprobación en un solo acto.

En su virtud, a iniciativa de la diputada Foral del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte, y previa deliberación de la Diputación Foral de Bizkaia,

DISPONGO:

Artículo único. *Aprobación de las bases reguladoras y de la convocatoria pública de subvenciones forales.*

Se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria de subvenciones forales que se concedan por el Departamento Foral de Euskera, Cultura y Deporte, destinadas a la realización de actividades de conservación, investigación y difusión del patrimonio etnográfico de Bizkaia, que se lleven a cabo en el Territorio Histórico de Bizkaia a lo largo del año 2025.

Disposiciones finales.

Disposición final primera. *Habilitación para el desarrollo reglamentario.*

1. Se habilita a la diputada Foral del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte para dictar cuantas disposiciones considere necesarias para el desarrollo, ejecución y aplicación de lo previsto en el presente Decreto Foral. Esta habilitación incluye la concesión de las subvenciones pertinentes.

2. Asimismo, se habilita a la diputada Foral de Euskera, Cultura y Deporte para acordar la ampliación del plazo de presentación de solicitudes, en el caso de incidencia técnica que imposibilite el funcionamiento ordinario del sistema o aplicación correspondiente, previsto en el artículo 32.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.





Azken xedapenetako bigarrena. *Indarrean jartzea.*

Foru dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Disposición final segunda. *Entrada en vigor.*

El presente Decreto Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el “Boletín Oficial de Bizkaia”.

Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatua / La diputada Foral de Euskera, Cultura y Deporte.
LEIXURI ARRIZABALAGA ARRUZA.

Ahaldun Nagusia / La Diputada General. ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA.





FORU DIRULAGUNTZEN OINARRI
ARAUTZAILEAK ETA DEIALDIA. 2025 URTEAN
ZEHAR BIZKAIKO KULTUR ONDARE
ETNOGRAFIKOA ZAINDU, IKERTU ETA
ZABALTZEKO JARDUERAK EGITEKOAK.

BASES REGULADORAS Y CONVOCATORIA DE
SUBVENCIONES FORALES DESTINADAS A LA
REALIZACIÓN DE ACTIVIDADES EN EL
ÁMBITO DE LA CONSERVACIÓN,
INVESTIGACIÓN Y DIFUSIÓN DEL
PATRIMONIO ETNOGRÁFICO DE BIZKAIA QUE
SE REALICEN A LO LARGO DEL AÑO 2025.

I. TITULUA
Xedapen orokorrak

1. oinarria. *Diru-laguntzaren xedea.*

1. Hauek dira Foru Dekretu honen arabera diru-laguntza jaso dezaketen jarduerak:

a) Xede nagusitzat Bizkaiko kultur ondare etnografikoa duten biltzarrak, jardunaldiak, mintegiak edo ikastaroak egitea.

b) Bizkaiko ondare etnografikoari buruzko ikerketa, dokumentazioa, interpretazioa eta azterlana.

c) Bizkaiko ondare etnografikoaren katalogazioa edo erregistroa.

d) Bizkaiko ondare etnografikoa artatu, berreskuratu edo hari balioa ematea.

e) Bizkaiko kultur ondare etnografikoaren zabalkundea, argitalpena eta hedapena.

Diru-laguntzarako eskabidean aurkeztutako proiektuak 2025eko ekitaldiaren barruan burutu beharko dira.

2. Foru Dekretu honen aplikazio-eremutik kanpo geratzen dira honako hauek:

a) Hartzaile talde zehatz batentzat bakarrik diren jarduerak, adibidez, diru-laguntza eskatu duen erakundeko kideentzat soilik bada.

b) Helburu bakarra duten kultura-jarduerak:

1) Ikus-entzunezko sorkuntza, ekoizpen editoriala eta sorkuntza literarioa, edo edozein edukiren arte plastikoen garapena.

2) Hezkuntza.

TÍTULO I
Disposiciones generales

Base 1. *Objeto de la subvención.*

1. Las actividades subvencionables con arreglo al presente Decreto Foral son las siguientes:

a) Celebración de congresos, jornadas, seminarios o cursos cuyo objeto principal sea el patrimonio etnográfico de Bizkaia.

b) Investigación, documentación, interpretación y estudio sobre el patrimonio etnográfico de Bizkaia.

c) Catalogación y registro del patrimonio etnográfico de Bizkaia.

d) Conservación, recuperación o puesta en valor del patrimonio etnográfico de Bizkaia.

e) Divulgación, publicación y difusión del patrimonio etnográfico de Bizkaia.

Los proyectos que motiven la solicitud de subvención deberán desarrollarse durante el ejercicio 2025.

2. Quedarán excluidas del ámbito de aplicación del presente Decreto Foral:

a) Actividades limitadas a un colectivo restringido, como puede ser exclusivamente a las personas asociadas de la entidad solicitante.

b) Actividades culturales que tengan por único objetivo:

1.º La mera creación audiovisual, producción editorial y creación literaria, o desarrollo de artes plásticas de cualquier contenido.

2.º Educación.





3) Gizarte ongizatea.

4) Ingurumena.

5) Gazteak, aisialdia, kirola eta astialdia.

c) Ikasketa bidaiak, ibilaldiak edo haien antzekoak direla-eta egiten diren jarduerak.

d) Zuzenean edo zeharka, Bizkaiko Foru Aldundia edo beste herri administrazio batzuk egiten ari diren jarduerak edo egitea aurrez ikusita daudenak.

e) Edozein motatako diskriminazioa eragiten duten proiektuak edo jarduerak, tratu-berdintasunari eta diskriminaziorik ezari buruz indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera.

3. Diru-laguntza jaso dezaketen gastuak izango dira batere zalantzarik gabe lagundutako jardueraren izaerarekin bat datozenak, behar-beharrezkoak direnak eta ezarritako epearen barruan egiten diren gastuak, baina diru-laguntza jaso dezaketen gastuen eskuraketa-prezioa ezin da inola ere izan merkatuko balioa baino handiagoa.

Honako hauek ez dira diruz lagundu daitezkeen gastuak:

a) Ekipo-ondasunak erostea, baldin eta haien amortizazioa luzeagoa bada Foru Dekretu honetan jasotzen diren jarduerak egiteko epea baino.

b) Jarduera egiten den lokalaren edo azpiegituraren amortizazio gastua edo kostua, bai eta informatikako zerbitzuei eta/edo euskarriei lotutako gastuak ere.

c) Banku-kontuen zorren interesak.

d) Interesak, gainordainak eta administrazio - zehapenak eta zehapen penalak.

e) Prozedura judizialen gastuak.

3.º Bienestar Social.

4.º Medio ambiente.

5.º Juventud, ocio, deporte y tiempo libre.

c) Actividades que se realicen con motivo de viajes de estudios, excursiones o similares.

d) Aquellas actividades que, directa o indirectamente, estén siendo realizadas, o esté prevista su realización por la Diputación Foral de Bizkaia u otras administraciones públicas.

e) Actividades o proyectos que incurran en discriminación de cualquier clase, de acuerdo con lo establecido en normativa vigente de igualdad de trato y no discriminación.

3. Tendrán la consideración de gastos subvencionables los que respondan de manera indubitada a la naturaleza de la actividad subvencionada, resulten estrictamente necesarios y se realicen en el plazo establecido, sin que el coste de adquisición de los gastos subvencionables pueda ser en ningún caso superior al valor de mercado.

No tendrán la consideración de gastos subvencionables los siguientes:

a) La adquisición de bienes de equipo cuya amortización exceda al periodo de ejecución de las actividades previstas en el presente Decreto Foral.

b) El gasto o coste de amortización del local o infraestructura donde se desarrolla la actividad, así como gastos relacionados con servicios y/o soportes informáticos.

c) Los intereses deudores de las cuentas bancarias.

d) Intereses, recargos y sanciones administrativas y penales.

e) Gastos de procedimientos judiciales.





f) Oro har, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 29. artikulua berariaz kanpo uzten dituenak.

4. Foru Dekretu honen helburua da eskatzaileen ekintzak lagundu eta osatzea; ez dira inoiz finantzatuko jarduera egiteagatik sortutako gastu guztiak.

2. oinarria. *Onuradunak.*

1. Foru Dekretu honetan araututako diru-laguntzen onuradun izan daitezke:

-Pertsona fisikoak, baldin eta diruz lagundu daitekeen proiektua aholkulari edo ikertzaile profesional gisa garatzen ez badute.

-Bizkaiko Lurralde Historikoko duten irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuak, baldin eta haien helburua Bizkaiko kultura-tradizioekin eta ondare etnografikoarekin lotuta badago, diru-laguntza ematea justifikatzen duen jarduera bat egitea aurrez ikusi badute eta dagozkien erregistroetan izena emanda badaude.

Eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunean bete beharko dira betekizun horiek guztiak. Halaber, prozeduran zehar ere bete beharko dira, diru-laguntzaren justifikazioa aurkeztu arte.

Aurreko paragrafoan aipatutako pertsonak eta entitateek dirulaguntza emateko oinarri den jarduera egitea aurreikusi behar dute, eta maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 12. artikuluan ezarritako kausetan sartuta ez egotea.

2. Honako hauek ezin izango dute diru-laguntza edo laguntzarik eskatu ez haien onuradun izan, baldin eta:

a) Sexuarengatik edonolako diskriminaziorik sortzeagatik edo berdintasunaren arloan indarrean dagoen araudia ez betetzeagatik, zehapen administratibo, laboral edo penalen

f) En general, los que resultan expresamente excluidos conforme al artículo 29 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo.

4. La finalidad del presente Decreto Foral será la de apoyar y completar la acción de las solicitantes, nunca la de financiar en su totalidad los gastos derivados de la ejecución de la actividad.

Base 2. *Beneficiarias.*

1. Podrán beneficiarse de las subvenciones reguladas en el presente Decreto Foral:

- Las personas físicas, siempre y cuando no desarrollen el proyecto subvencionable en calidad de consultoras o investigadoras profesionales.

- Las entidades privadas sin fines lucrativos del Territorio Histórico de Bizkaia cuyo objeto esté relacionado con las tradiciones culturales y el patrimonio etnográfico de Bizkaia, que hayan previsto realizar la actividad que fundamenta el otorgamiento de la subvención, y que estén inscritas en los correspondientes registros.

Los requisitos deberán de cumplirse a la fecha de finalización del plazo de presentación de las solicitudes y mantenerse todos ellos durante todo el procedimiento y hasta el momento de la entrega de la justificación de subvención.

Las personas o entidades solicitantes indicadas en el párrafo anterior deben haber previsto realizar la actividad que fundamenta el otorgamiento de la subvención, y no estar incurso en las causas del artículo 12 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo.

2. En ningún caso podrán concurrir ni resultar beneficiarias de ningún tipo de ayudas o subvenciones:

a) Quienes hayan sido objeto de sanción administrativa, laboral o penal por incurrir en discriminación por razón de sexo, durante el período impuesto en la correspondiente





bat jaso dutenak, zehapenean ezarritako epean zehar.

b) Hala badagokio, beren helburuak, onarpen-edo sarbide-sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduera, antolaketa edo estatutuak emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioaren aurkakoak badira.

c) LGTBI pertsonak eta beste kolektibo batzuetako pertsonak diskriminatzeagatik edo tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren arloan indarrean dagoen araudia ez betetzeagatik, zehapen administratibo edo penalen bat jaso dutenak, zehapenean ezarritako epean zehar.

d) Hala badagokio, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudian ezarritako baldintzetan, berdintasun-planak eta sexu-jazarpena, sexuan oinarritutako jazarpena eta sexu-indarkeriak prebenitzeko eta halakoei aurre egiteko neurriak jasotzen dituzten protokoloak eta/edo dokumentuak izateko betebeharra bete ez dutenak.

II. TITULUA

Araubide juridikoa

3. oinarria. Araudi aplikagarria.

Foru-dekretu honetan jasota ez dagoenerako, honako hauek aplikatuko dira: Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua eta martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Dirulaguntzen Erregelamendua, baita Administrazioen Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea, Administrazio Elektronikoaren esparruan Elkarrengarritasunaren Eskema Nazionala arautzen duen urtarrilaren 8ko 4/2010 Errege Dekretua, Segurtasunaren Eskema Nazionala arautzen duen maiatzaren 3ko

sanción o por incumplimiento de la normativa vigente en materia de igualdad.

b) En su caso, aquellas cuyos fines u objetivos, sistema de admisión o acceso, funcionamiento, trayectoria, actuación, organización o estatutos sean contrarios al principio de igualdad de mujeres y hombres.

c) Quienes hayan sido objeto de sanción administrativa o penal por incurrir en discriminación de las personas LGTBI y de otros colectivos, durante el periodo impuesto en la correspondiente sanción o por incumplimiento de la normativa vigente de igualdad de trato y no discriminación.

d) En su caso, quienes no cumplan con la obligación de disponer de planes de igualdad y protocolos y/o documentos que recojan las medidas para prevenir y combatir el acoso sexual, el acoso por razón de sexo y las violencias sexuales en los términos establecidos por la normativa en materia de igualdad de mujeres y hombres.

TÍTULO II

Régimen jurídico

Base 3. Normativa aplicable.

Para todos aquellos aspectos no previstos en el presente Decreto Foral serán aplicables la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral y el Reglamento de Subvenciones aprobado por el Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo de la Diputación Foral de Bizkaia, así como la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, el Real Decreto 4/2010, de 8 de enero, por el que se regula el Esquema Nacional de Interoperabilidad en el ámbito de la Administración Electrónica, el Real Decreto 311/2022 de 3 de mayo, por el que se regula





311/2022 Errege Dekretua, eta bere izaeragatik aplikatzekoa izan daitekeen beste edozein arau-xedapen.

Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Araua erakunde pribatu hauei aplikatuko zaie: aurrekontu-ekitaldian zehar Bizkaiko Foru Aldundiaren 100.000 euro edo gehiagoko laguntzak edo diru-laguntzak jasotzen dituztenei edo haien urteko diru-sarreraren % 40 Aldundiaren laguntzetatik edo diru-laguntzetatik badator, betiere gutxienez 5.000 euro badira.

4. oinarria. *Arau-haustek eta zehapenak.*

Arau-hauste eta zehapenei dagokienez, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren IV. tituluan xedatutakoa ezarriko da, bai eta arau hori garatzen duen erregelamenduaren IV. tituluan xedatutakoa ere.

III. TITULUA

Prozedura

5. oinarria. *Eskabideak aurkezteko lekua eta epea.*

1. Pertsona fisikoen kasuan, eskabideak Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Ondarearen Zerbitzuan aurkeztu ahal izango dira (María Díaz de Haro kalea, 11 zk., Bilbo), astelehenetik ostiralera, 8:30etik 13:30era, edo Administrazio Publikoen Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4. artikuluan ezarritako eran.

Horrez gainera, aukera egongo da eskabideak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza

el Esquema Nacional de Seguridad, y cualquier otra disposición normativa que por su naturaleza pudiera resultar de aplicación.

La Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de transparencia de Bizkaia, les será de aplicación a aquellas entidades privadas que durante un ejercicio presupuestario perciban de la Diputación Foral de Bizkaia ayudas o subvenciones que alcancen al menos una cuantía de 100.000 euros o cuando el 40 % del total de sus ingresos anuales tengan el carácter de ayuda o subvención pública foral, siempre que alcancen como mínimo 5.000 euros.

Base 4. *Infracciones y sanciones.*

En lo referente a infracciones y sanciones se aplicará lo establecido en el Título IV de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, y en el Título IV del Reglamento de desarrollo de la misma.

TÍTULO III

Procedimiento

Base 5. *Lugar y plazo de presentación de las solicitudes.*

1. Tratándose de personas físicas, las solicitudes de subvención se podrán presentar en las oficinas del Servicio de Patrimonio Cultural de la Diputación Foral de Bizkaia sito en la calle María Díaz de Haro número 11 de Bilbao (de lunes a viernes de 8:30 a 13:30 horas), o en la forma que determina el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

También podrán presentarse solicitudes a través de la sede electrónica de la Diputación





elektronikoaren bidez aurkezteko:

<https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera>

2. Irabazteko asmorik gabeko erakundeek kasuan, Administrazio Publikoen Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2. artikuluan xedatutakoarekin bat, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu beharko dira eskabideak:

<https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera>

Egoitza elektronikoko izapideen katalogoan dago Foru-Dekretu honen laburpen-fitxa.

3. Eskabideak aurkezteko hogeita egun naturaleko epea izango da, foru dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik zenbatuta.

6. oinarria. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa eta betekizunak.

1. Eskabidea Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztuz gero, egoitzan egongo dira eskuragarri eskabidearen eredu espezifikoak, bete eta aurkeztu ahal izateko, 39/2015 Legearen 66.6. artikuluan ezarritakoarekin bat:

<https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera>

Gainerako kasuetan, diru-laguntzen eskabideak behar bezala betetako ereduak aurkeztu beharko dira; helbide honetan eskura daiteke inprimakia:

<http://www.bizkaia.eus//kulturadirulaguntzak>

2. Bi kasuetan, eskaera bakoitzak ondare etnografikoari buruzko jarduera-proiektu bakarra izango du, eta, eskaerarekin batera, hurrengo ataletan eskatzen diren agiriak

Foral de Bizkaia:

<https://www.ebizkaia.eus/es/inicio>

2. En el caso de las entidades privadas sin fines lucrativos, y de conformidad con lo dispuesto en el artículo 14.2 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, éstas deberán presentar sus solicitudes a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia:

<https://www.ebizkaia.eus/es/inicio>

En el catálogo de trámites de la sede electrónica se encuentra la ficha resumen del presente Decreto Foral.

3. El plazo para la presentación de solicitudes será de veinte días naturales a contar desde el día siguiente a la publicación del presente Decreto Foral en el Boletín Oficial de Bizkaia.

Base 6. Documentación a acompañar a la solicitud y requisitos.

1. Para quien presente su solicitud a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia los modelos específicos de solicitud estarán disponibles para su cumplimentación y presentación en la sede de acuerdo con lo previsto en el artículo 66.6 de la Ley 39/2015:

<https://www.ebizkaia.eus/es/inicio>

En los demás casos, las solicitudes de subvención se deberán presentar en el modelo debidamente cumplimentado y accesible a través de la página web:

<http://www.bizkaia.eus//kulturadirulaguntzak>

2. En ambos casos, cada solicitud contendrá un único proyecto de actividad relativa al patrimonio etnográfico y deberá ir acompañadas de la documentación exigida en





aurkeztu beharko dira, interesdunak edo haren ordezkariak sinatuta:

a) Erakunde eskatzailearen gaur egungo estatutuak.

b) Dagokion erregistroan inskribatuta egotearen ziurtagiria irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuak badira.

Ez da beharrezkoa izango aurreko a) eta b) idatz-zatietan adierazitako dokumentazioa aurkeztea, Administrazioaren esku dagoenean, baldin eta espediente eta gerora izan dituen aldaketak adierazten badira.

c) Jardueraren edo proiektuaren txosten zehaztua. Dokumentu horretan, diru-laguntza jasotzen duen jarduera gauzatzeko gehieneko epea argi jarri behar dira, eta epe horiek ezin izango dute 2025eko abenduaren 31 gainditu. Gainera, txosten honetan, jarri behar dira foru dekretu honen 10. oinarriak diru laguntza emateko zehazten dituen irizpideak justifikatzeko gainerako aspektuak.

d) Legezko edo borondatezko ordezkaritza zuzenbidean baliozkoa den edozein bitartekoren bidez egiaztatu beharko da.

7. oinarria. Dokumentazio egiaztagarria.

Dauden datu-bitartekaritzarako sistemen bidez, Bizkaiko Elkarreragingarritasun Nodoa erabiltza, Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Saileko Kultura Ondarearen Zerbitzuak egiaztatu eta kontsultatu egingo ditu administrazio publikoek dituzten datuak, dekretu honen izapidetze administratiborako beharrezkoak direnean, interesdunak modu espresoa kontra dagoela adierazten ez badu. Kontra egonez gero, arrazoiak adierazteaz gainera, behar diren datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko dira.

los siguientes apartados y suscrita por la interesada o su representante:

a) Estatutos actuales de la entidad solicitante, en el caso de tratarse de entidades privadas sin fines lucrativos.

b) Certificado de estar inscrita en el registro correspondiente, en el caso de tratarse de entidades privadas sin fines lucrativos.

No será necesario aportar la documentación indicada en los apartados a) y b) precedentes cuando dicha documentación obre ya en poder de la Administración, siempre que se indique el expediente en que se encuentra y las modificaciones posteriores que haya conocido.

c) Memoria detallada de la actividad o proyecto en la que se deberá consignar, de forma expresa, los plazos máximos de ejecución de la actividad subvencionada, no pudiendo éstos superar el 31 de diciembre del año 2025. En esta memoria, deberán recogerse, además, todos los aspectos que justifiquen el cumplimiento de los criterios de valoración señalados en la base 10 de este Decreto Foral.

d) La representación, legal o voluntaria, deberá acreditarse por cualquier medio válido en derecho.

Base 7. Documentación verificable.

El Servicio de Patrimonio Cultural del Departamento Foral de Euskera, Cultura y Deporte, mediante los sistemas de Intermediación de datos disponibles, a través del Nodo de interoperabilidad de Bizkaia, realizará las comprobaciones y consultas pertinentes de los datos necesarios para la tramitación administrativa del presente decreto que obren en poder de las Administraciones Públicas, salvo oposición expresa de las interesadas, en cuyo caso, además de indicar los motivos de su oposición, deberán aportarse los datos o documentos





Datu horiek honako hauek dira:

a) Banku kontuaren titulartasun datuak.

Eskatzaileak uko egiten badio administrazioak bere bitartekoak erabiliz bankuko datuak egiaztatzeari, kasu horietan bakarrik, banku-helbideratzearen fitxa behar bezala beteta aurkeztu beharko da, hurrengo web-orrian eskuragarri dagoen eredu ofizialean:

<http://www.bizkaia.eus/kulturadirulaguntzak>

b) Zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.

c) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.

Nolanahi ere, arrazoi teknikoak direla eta, ezinezkoa bada elkarreragingarritasunera jotzea, Kultura Ondarearen Zerbitzuak izapideak egiteko beharrezkotzat jotzen dituen datuak edo dokumentuak eskatu ahal izango ditu.

Datu horiek eskuratzeko modua bat etorriko da Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduan (EB) eta erregelamendu hori garatzen duen araudian ezarritakoarekin, baita Datu pertsonalak babestu eta eskubide digitalak bermatzeko 2018ko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoarekin ere.

8. oinarria. Eskabideak zuzentzea eta hobetzea.

1. Eskabideak behar bezala beteta ez badaude, edo Foru dekretu honetan eskatutako agirietakoren bat falta badute, orduan, erakunde interesdunari errekerimendua egingo zaio, hamar (10) egun balioduneko epearen barruan akatsa zuzentzeko edo

correspondientes.

Los referidos datos son:

a) Los datos de titularidad de la cuenta bancaria.

En caso de que la solicitante se oponga a que esta Administración compruebe dichos datos bancarios por sus propios medios, deberá aportarse ficha de domiciliación bancaria debidamente cumplimentada, en el modelo oficial disponible a través de la página-web:

<http://www.bizkaia.eus/kulturadirulaguntzak>

b) Certificado de estar al corriente de las obligaciones tributarias

c) Certificado de estar al corriente de las obligaciones con la Seguridad Social.

En todo caso, si por causas técnicas la interoperabilidad no fuera posible el Servicio de Patrimonio Cultural podrá requerir datos o documentos necesarios para la tramitación.

Cualquier acceso a los datos personales se realizará de conformidad con lo previsto al respecto en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos y su normativa de desarrollo, así como en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y Garantía de los Derechos Digitales.

Base 8. Subsanación o mejora de las solicitudes.

1. Si las solicitudes no se formalizaran completamente o faltara alguno de los documentos exigidos por el presente Decreto Foral, se requerirá a la interesada para que en el plazo de diez (10) días hábiles subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos,





nahitaezko agiriak aurkezteko. Era berean, jakinaraziko zaio ezen hala egiten ez badu eskaeran atzera egin duela ulertuko dela eta, behin ebazpena emanda, eskaera artxibatu egingo dela.

2. Edonola ere, Euskara, Kultura eta Kirol Foru Sailak aurkezten diren eskabideak behar bezala ulertzeko eta ebaluatzeko beharrezkotzat jotzen duen informazio osagarri guztia eskatu ahal izango du.

9. oinarria. *Diru-laguntza emateko prozedura.*

Diru-laguntzak norgehiagoka sistema erabiliz, hau da, aurkeztutako eskabideak alderatuko dituen epaimahai kalifikatzaile bat eratuz emango dira; epaimahai horrek, 10. oinarrian ezarritako balorazio-irizpideak kontuan hartuta, aurkeztutako eskabideen arteko lehentasun-ordena ezarriko du, eta foru diru-laguntzak puntuaziorik altuenak lortu dituztenei emateko proposamena aurkeztuko du, betiere aurrekontu partidan ezarritako zenbatekoa muga izanik.

Ondorioz, aurrekontu-partida horren mugak eragozten badu 10. oinarriko 2. paragrafoan ezarritako gutxieneko puntuazioa lortu duten eskabide guztiei foru-diru-laguntzak esleitzea, puntuazio handiena dutenei esleitzea proposatuko da, eskabide bakoitzaren lehentasun-hurrenkerari jarraituz, dagokion zenbatekoa agortu arte.

Era berean, zenbait eskabidek lehentasun-ordena bera badute puntuazio bera lortu dutelako, eta puntuazio handieneko eskabideei dagozkien diru-laguntzak esleitu ondoren, haietarako dagoen zenbatekoa ez bada iristen dagozkien diru-laguntzen guztizko zenbatekoari erantzuteko, hauei aplikatutako diru-laguntzaren ehuneko

con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida de su petición, archivándose la misma, previa la correspondiente resolución.

2. En todo caso, el Departamento Foral de Euskera, Cultura y Deporte podrá solicitar cuanta información complementaria considere necesaria para la adecuada comprensión y evaluación de las solicitudes presentadas.

Base 9. *Procedimiento de concesión.*

La concesión de las subvenciones se realizará mediante el sistema de concurrencia competitiva, esto es, mediante la constitución de un tribunal calificador que procederá a la comparación de las solicitudes presentadas, a fin de establecer una prelación entre las mismas, atendiendo a los criterios de valoración fijados en la base 10, proponiendo la adjudicación de las subvenciones forales a aquéllas que hayan obtenido mayor puntuación, teniendo como límite la cuantía consignada en la correspondiente partida presupuestaria.

En consecuencia, cuando el límite de la citada partida presupuestaria impida proponer la adjudicación de las subvenciones forales a la totalidad de las solicitudes que hayan obtenido la puntuación mínima establecida el apartado 2 de la base 10, se propondrá su adjudicación a las de mayor puntuación, siguiendo el riguroso orden de prelación de cada solicitud, hasta agotar la cuantía correspondiente.

Asimismo, cuando varias solicitudes tengan el mismo orden de prelación por haber obtenido la misma puntuación y, una vez adjudicadas las subvenciones correspondientes a las solicitudes de mayor puntuación, resulte que la cuantía disponible para ellas no alcance para atender el importe total de las subvenciones que les corresponden, se procederá a reducir





murritzuko da, harik eta erabilgarri dagoen zenbatekoa agortu arte.

10. oinarria. *Diru-laguntzak ebaluatzeko irizpideak.*

1. Foru Dekretu honek azaltzen dituen diru-laguntzak norgehiagoka sistema bidez emango direnez lehenetasun-ordena ezartzeko, epaimahai kalifikatzaileak honako irizpide hauek eta haien haztapena hartuko ditu kontuan. Gehienez ere 100 puntu emango dira, honela:

a) Esku-hartzeak ondare etnografikoaren ikuspegitik duen kalitatea eta interesa. Horregatik, gehienez 30 puntu emango da.

Diru-laguntzaren xede den esku-hartzearen interesak eta kalitateak beraren kultur balioei egiten die erreferentzia eta, bereziki, ondare etnografikoaren kultur balioei. Ondorioz, helburu hauetako bat duten ekimenak baloratuko dira: desagertzeko arriskuan dagoen ondare elementu bat, edo balio etnografikoko jarduera edo memoria bat kontserbatzea, edo ikusarazi behar diren gizarte-taldeei buruzko ondarea edo galtzeko zorian dagoen ondare etnografikoa bat ikertu, katalogatu edo hedatzea. Gehieneko puntuazioaren barruan (30 puntu), interes gutxiagokotzat jotzen dira desagertutako jarduerak birsortzeko jarduketa-proiektuak, eta ondare etnografiko ezagunagoak hedatzea helburu dutenak, haien balioa ez baita gehitzen proposatutako jardueraren bidez.

b) Jardueraren elementu eraberritzaileak. Horregatik, gehienez 20 puntu emango da.

Irizpide horren barruan, gai-berrikuntzaren arloko elementuak baloratuko dira, kontuan hartuta gai-eremu bereko antzeko irismeneko beste jarduera batzuk dauden, bai eta, berrikuntza metodologikoa ere. Azken horrek diru-laguntzaren xede den jarduera erregistratu, tratatu, ikertu edo hedatzeko

el porcentaje de subvención aplicado a las mismas, hasta agotar la cuantía disponible.

Base 10. *Criterios de valoración de las subvenciones.*

1. Al objeto de establecer un orden de prelación, dado que las subvenciones a que se refiere este Decreto Foral se otorgarán en régimen de concurrencia competitiva, el Tribunal calificador aplicará los siguientes criterios y su ponderación, que, sobre un máximo de 100 puntos, quedan establecidos como sigue:

a) Calidad e interés de la intervención desde el punto de vista del patrimonio etnográfico. Se valorará hasta 30 puntos del total a conceder.

El interés y la calidad de la intervención para la que se solicita la subvención se entienden referidos a sus valores culturales, y en particular a los que afectan específicamente al patrimonio etnográfico. En este sentido, se valorarán las iniciativas que tienen como objetivo la conservación de un elemento patrimonial, actividad o memoria de valor etnográfico en riesgo de desaparición, o la investigación, catalogación o difusión de un patrimonio etnográfico e igualmente en riesgo de desaparecer, o relativo a grupos sociales menos visibilizados. Sobre este máximo de 30 puntos se consideran de menor interés los proyectos de actuaciones de reinvención de actividades desaparecidas y los de difusión de patrimonios etnográficos más comunes, cuyo valor no se incrementa por razón de la actividad propuesta.

b) Elementos innovadores de la actividad. Se valorará hasta 20 puntos del total a conceder.

Con relación a este criterio se valorarán tanto los elementos de innovación temática, con relación a la existencia de otras actividades de similar alcance relativas al mismo campo temático, como la innovación metodológica, referida a la aplicación de metodologías avanzadas para el registro, tratamiento,





metodologia aplikatuei egiten die erreferentzia.

Puntuaziorik altuenak emango zaizkie gai-eremu berritzaileak eta ikusarazi behar diren gizarte-taldeen arloa hartzeagatik nabarmentzen diren ekimenei. Berritzaileak izango dira gai-eremu horietan ez dagoelako ekarpen bibliografikorik, ez antzeko dokumentaziorik. Halaber, hain ohikoak ez diren ondare etnografikoaren alderdiei heltzen dieten ekimenek jasoko dituzte puntuaziorik altuenak. Puntuazio baxuagoak jasoko dituzte ondare etnografikoaren ohiko alderdiak azpimarratzen dituzten ekimenek (tokiko eremuan modu trinkoagoan egiten badute ere), batere berritzaileak ez diren metodoak erabiltzen dituzten ekimenek (balio etnografikoari buruzko informazio-metaketa tradizionala) eta kudeaketa-programa berezirik ez duten hedapen-proiektuek.

c) Jarduerak kanpoan dituen oihartzuna eta zabalkundea. Horregatik, gehienez 20 puntu emango da.

Diru-laguntzarako proposatutako jardueraren oihartzuna eta balizko hedapena baloratuko dira, bai jarduerak har dezakeen lurralde-eremuari eta gizarte-zerrendari dagokienez, bai proposamenaren onuradunen kopuruari eta iraunkortasunari dagokienez. Hala, kalifikaziorik altuenak Bizkaia osoa ikergai duten ekimenei edo zabalkundearen hartzaileak publiko zabala eta inklusiboa duten ekimenei emango zaizkie.

d) Jardueraren erantzulearen eta egileen prestakuntza-maila pertsonal, profesional edo tekniko. Horregatik, gehienez 20 puntu emango da.

Esku-hartzearen jarduera burutzen duten arduradunen prestakuntza pertsonal, profesional eta tekniko baloratuko da. Horretarako, proposatutako jarduera ondo burutzeko ahalmena neurtuko da, aurretiko antzeko esperientzietan metatutako

estudio o difusión de la actividad objeto de subvención.

